

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2923

*AGINDUA, 2022ko ekainaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, hezkuntza-itunak berritzekoa eta hezkuntza-itunen araubidean sartzekoa, unitateak zehaztuta, eta laguntzako langile osagarriak ituntzekoa, 2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin.*

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko Agindua-ren bidez, 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritu eta itun berriak izenpetu ziren (2016ko apirilaren 17ko EHAA).

Beraz, 2021-2022 ikasturtea amaitu denez, iraungi da agindu horren bidez berritu edo izenpetu ziren hezkuntza-itunen sei urteko indarraldia. Horrenbestez, gaur egun indarrean diren hezkuntza-itunak berritzeko beste prozedura bat iragarri behar da, gaur egun itunpekoak ez diren ikastetxeak hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko, eta zehazteko zeintzuk izango diren itunpeko unitateak eta laguntzako langile osagarriak 2022-2023 ikasturtetik aurrera.

Aurreko seiurtekoari dagokionez, deialdi honek besteak beste aldaketa hauek dakartza datorren seiurtekorako: Deialdi bakarrean bildu dira hezkuntza-laguntzako berariazko arretarik behar ez duten eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzea behar ez duten ikasleentzako irakaskuntzen ituntzea eta halakorik behar duten ikasleentzako irakaskuntzen ituntzea. Alabaina, deialdi honetan, «gela irekiak» direlakoak kendu egin dira itunaren xede gisa, eta hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzea behar duten ikasleei laguntzeko langile osagarrien ituntzea sartu da.

Prozeduren diseinuari dagokionez, deialdi honetan batera egingo dira hezkuntza-itunen arloko araudiak aitortutako eskubideak erabiliz ikastetxearen titularrak egingo duen eskabidea, batetik, eta tramitazioa bizkortzeko Administrazioak egingo duen ofiziozko proposamena, bestetik; ikastetxearen titularrak borondatez onartu beharko du, 17. artikuluan aipatutako ezohiko aldaketan izan ezik.

Otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 4. artikulua ematen didan eskumenaz baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiko prozedurak.

1.– Agindu honen xedea da prozedura hauek iragartzea:

a) Hezkuntza-itunak berritzeko prozedura, 2021-2022 ikasturtean itundutako unitateak gutxituz edo mantenduz.

b) Itunpeko ikastetxeetan irakaskuntzak eta unitateak areagotzeko prozedura; eta gaur egun araubide horretan sartuta ez dauden ikastetxeak hezkuntza-itunaren araubidean sartzekoa.

c) Hezkuntza-laguntzako berariazko premietarako eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko laguntzako langile osagarriak ituntzeko prozedura.

Deialdiko prozedurek ofiziozko prozedura, eskabidea eta ebazpena izango dituzte.

2.– Hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 74. artikularekin bat etorritik, 2021-2022 ikasturtean itunpeko ikastetxe batek berritzeko deialdi honetan parte hartzen ez badu, Hezkuntza Sailak ofizioz egindako berritzeko proposamena onartuta nahiz berritzeko proposamena ikastetxeak berak aurkeztuta, hezkuntza-itunari uko egiten diola ulertuko da.

3.– Itunpeko unitateak eta laguntzako langile osagarriak aldatzeko, urtero egingo da ofiziozko proposamena eta, hala badagokio, eskabide-proposamena.

4.– Era berean, itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuek urtero eskatu ahal izango dute hezkuntza-itunaren araubidean sartzea.

2. artikulua.– Iraupena, luzapena eta azkentzea.

Haien araubide juridikoko araudian adierazitako berritzeari, luzapenari eta azkentzeari kalterik egin gabe, hezkuntza-itunak agindu honen babesean sinatuko edo berrituko dira 2022-2023 eta 2027-2028 arteko ikasturteetarako.

3. artikulua.– Araubide juridikoa.

Deialdiko prozeduren xede diren hezkuntza-itunak besteak beste honako arau hauetan dauden hezkuntza-itunen araubide juridikoaren mende daude:

a) 8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duena.

b) 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

c) Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontu orokorren legeak.

d) 2377/1985 Errege Dekretua, abenduaren 18koa, Hezkuntza-itunen Oinarrizko Araudia onartzen duena.

e) 293/1987 Dekretua, irailaren 8koa, Hezkuntza-itunen Erregelamendua onartzen duena.

4. artikulua.– Deialdi honen xede diren irakaskuntzak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako, irakaskuntzat hartzen dira jarraian zerrendatutako mailak, zikloak, etapak eta irakaskuntzak:

a) Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko hirugarren maila.

b) Haur Hezkuntzako bigarren zikloa.

c) Lehen Hezkuntzako etapa.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa.

e) Batxilergoko etapa.

f) Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloa.

g) Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloa.

h) Lanbide Heziketako goi-mailako zikloa.

i) Lanbide Heziketako espezializazio-maila.

j) Heziketa Bereziko irakaskuntzak.

2.– Lanbide Heziketan, itunean sartutako berariazko espezializazioko zikloak eta ikastaroak dira itunpeko irakaskuntzak.

5. artikulua.– Itunpean egon daitezkeen unitateak eta laguntzako langile osagarriak.

1.– Deialdi honen ondorioetarako, itunpean egon daitekeen unitatea da ikasturtean zehar curriculum edo programa emateko ikasleak eta irakasleak eraturako ikasgela. Itunpean egon daitezkeen unitateen tipologia hau finkatu da:

a) Gela arrunta, ikastetxe arruntean.

b) Heziketa bereziko gela egonkorra, heziketa bereziko ikastetxean.

c) Heziketa bereziko gela egonkorra, ikastetxe arruntean (Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 25. artikulua).

d) Zereginen ikaskuntzarako gelak, ikastetxe arruntean (helduarora igarotzeko prestakuntza-programa).

e) Zereginen ikaskuntzarako gelak, Heziketa Bereziko ikastetxean (Helduarora igarotzeko prestakuntza-programa).

f) Curriculum dibertsifikatzeko programa, ikastetxe arruntean (Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 27. artikulua).

g) Eskolatzeko osagarriko programa, ikastetxe arruntean (ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren 23.3 eta 24.3 artikulua).

2.– Itunpeko unitateetan eskolatuta egon eta Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoko II. Tituluko lehenengo eta bigarren kapituluek hurrenez hurren aipatzen dituzten hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzea behar duten ikasleei laguntzako langile osagarriak itunpekoak izan daitezke, hala nola: pedagogia terapeutikoko irakasleak, hezkuntza berariaz sendotzeko irakasleak, hezkuntza-laguntzako espezialistak eta behar diren gainerako guztiak, bat etorritik hezkuntza-laguntzako berariazko premiei erantzuteko eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko antolamendua ezartzen duen araubidearekin.

Laguntzako langile osagarri horiek ofizioz proposatuko dira edo deialdi honetan xedatutakoaren arabera eskatuko dira eta Hezkuntza Administrazioak finantzatuko ditu, 6. artikuluko 4 eta 5. apartatuetan eta xedapen gehigarri bakarrean adierazitakoaren arabera.

6. artikulua.– Ituntzeko eskakizunak.

1.– Deialdiko prozeduren xede den itunak behar adina aurrekontu izan behar du.

2.– Titularrek eta ikastetxeek betekizun orokor hauek dituzte:

a) Dagokion irakaskuntza emateko baimena izatea, baita itunaren xede diren unitateena ere.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

c) Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 108. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren baitako eskolatzeko-beharrak asetzea, c) letra honen azken paragrafoan berritzeko adierazitakoa galarazi gabe.

293/1987 Dekretuaren 14. artikuluen arabera, eskolatzeko beharrak izango dira euskararen hizkuntza-normalizazioaren prozesutik sortzen direnak eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren programazioaren arabera euskaraz irakasteko eskaririk sortzen direnak.

d) Agindu honen I. eranskinean adierazitako itunpeko unitate bakoitzeko gutxieneko eta gehiengo ikasle-kopuruak eta irizpideak betetzea.

3.– Betekizun orokorrez gain, honako betekizun espezifikoko hau ere bete behar da oinarrizko, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako zikloak eta espezializazio-ikastaroak ituntzeko: lanbide-heziketaren arloan eskumenak dituen sailburuordetzak onartutako planifikazioan sartuta egon behar du irakaskuntza zehatzak, sektore ekonomikoen beharretara eta enplegu-eskakizunera egokitzeko.

4.– Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten edo hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzea behar duten ikasleei laguntzeko langile osagarrien eta unitateen ituntzea gauzatzeko eta mantentzeko, dibertsitatearen eta hezkuntza-inklusioren arloko zuzendaritza organiko eskudunaren adostasuna beharko da.

5.– Hezkuntza-laguntzako berariazko premien edo hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzearen arloan, unitateak nahiz laguntzako langile osagarriak emateko, sail honen titulartasuneko zentroen zuzkidurarako erabiltzen diren betekizun eta irizpide berberak erabiliko dira.

Eskabideak aurkezteko epea hasi aurretik, hezkuntza inklusiboan eta aniztasunean eskumena duen saileko organoak argitaratuko ditu eskakizun eta irizpide horiek Hezkuntza Sailaren honako helbide honetan, goian aipatutakoarekin bat etorriz: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusioba-aniztasunari-erantzuna-ikastetxeei-laguntzeko-baliabideak/web01-a3hinklu/eu/>

7. artikulua.– Lehentasunezko emakida.

1.– 1. artikuluen 1. apartatuko a) letran aipatutako ituna berritzeak lehentasuna du apartatu eta artikuluko horretako b) letrako hazkundearekin eta sarbidearekin alderatuz gero.

2.– Era berean, itunpeko unitateetan eskolatutako ikasleek lehentasuna izango dute hezkuntza-laguntzako berariazko premietan eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzean laguntzeko langile osagarriak emateko orduan.

3.– Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 116. artikuluko 6. apartatuarekin bat etorriz, lehentasunez itundu ahal izango dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeek beren ikasleei ematen dizkieten lanbide-prestakuntzako programak.

8. artikulua.– Berritzeko eskubidea.

1.– Irakaskuntzak edo unitateak gehitu gabe ituna berritzeko, nahikoa izango da aurrekontuan kontsignatuta egotea eta 6. artikuluko 2. eta 3. apartatuetako betekizunak betetzen jarraitzea.

2.– 9. artikuluko aipatzen dituen lehentasunezko irizpideak soilik ezarriko dira dagozkien berrikuntzetarako behar adina aurrekontu ez badago.

9. artikulua.– Irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko irizpideak eta hezkuntza-itunen araubidean sartzekoak.

1.– Itunpeko irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko eta hezkuntza-ituneko araubidean sartzeko, 6. artikuluan ituntzeko ezarritako betekizunak betetzen dituzten artean lehentasuna izango dute

dagozkien irakaskuntzetarako lehentasunezko irizpide hauek alegatzen eta betetzen dituzten ikastetxeek:

a) Egoera ekonomiko txarrean dauden ikasleen proportzio handiena.

b) Ikastetxearen programazioan aurreikusita dauden eta hezkuntza-sistamarako interes pedagogikoa duten esperientziak egitea.

c) Ikastetxearen eragin-esparruan bizi den ikasle gehien izatea. Otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuaren 5.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, irizpide hau ez da ezarriko lanbide-heziketako erdi- eta goi-mailako zikloetan.

d) Kooperatiba-erregimenean eratuta egotea eta erregimen horretan funtzionatzea.

10. artikulua.– Ofizioz egindako proposamena eta zentroaren titularraren eskabidea.

1.– Ofiziozko eskabideak Administrazioan dauden datuetatik abiatuta egingo dira eta onarpenerako epean eskuragai egongo dira.

Itunaren indarraldian ituna aldatzeko nahiz berritzeko ofiziozko proposamenek aurrez itundutakoa murriztea proposa dezakete, horretarako arrazoiak egon eta behar bezala motibatuz gero.

Itunpeko irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko behin-behineko ofiziozko proposamen baldintzatua hezkuntza-itunen araubidean sartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan egingo da, eta eskabide horiekin bat etorritz.

2.– 3. apartatuan aipatutako kasuetan izan ezik, ofiziozko proposamena ondorioz gabe geratuko da, kasu bakoitzean adierazitako epean berariaz onartzen ez bada. Epe horretan ofiziozko proposamena onartzen ez duen ikastetxeak bere eskabidea aurkeztu ahal izango du.

3. apartatuko salbuespenari dagokionez, ofiziozko proposamena onartzen ez bada eta pertsona interesdunaren eskabidea forman eta epean aurkezten ez bada, honako ondorio hau izango du:

a) Berritzeari dagokionez, 1. artikulua 2. apartatuan ezarritakoa ulertuko da.

b) Itunpeko irakaskuntzak edo unitateak gehitzeari dagokionez, ofizioz proposatutako hazkundeari uko egiten zaiola ulertuko da, hala badagokio.

c) Laguntzako langile osagarriak ituntzeari dagokionez, ofizioz proposatutako ituntzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Itunari buruzko ondorio horiek ez dute salbuesten pertsona titularra eta ikastetxea doakotasunaren betebeharretik eta hezkuntza-laguntzako berariazko premiei erantzuteko eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko betebeharretik.

3.– 17. artikuluan adierazitako ezohiko aldaketan, ofiziozko proposamenaren orde zuzen egingo da jarri pertsona interesdunaren eskabidea. Dena dela, ofiziozko eskabidea behar bezala arrazoituko da eta ikastetxearen titularrari entzunaldi-izapidea egingo zaio.

11. artikulua.– Ofiziozko proposamena onartzeko eta eskabideak aurkezteko epea eta forma.

1.– Ituna berritzea, itunpeko irakaskuntzak edo unitateak gehitzea eta laguntzako langile osagarriak ituntzea ofiziozko proposamenez egingo da, eta, hala badagokio, eskabide bidez.

Ikastetxeek hautatu egin dezakete ofizioz egindako proposamena onartzea edo beren eskabidea egitea. Ofiziozko proposamena onartuz gero, ez da eskabidea egin behar.

2.– Hezkuntza-itunaren araubiderako sarbidea ez da ofiziozko proposamenaren xede izango; aurrez pertsona interesdunak eskatuta baino ezin da eman.

3.– Ikastetxeen Erregistroan ikastetxearen titular gisa ageri den pertsona fisikoak edo juridikoak egin behar ditu onarpenak nahiz eskabideak.

4.– Ofizioz aurkeztutako proposamenak onartzeko eta eskabideak aurkezteko, 15 egun balioduneko epea egongo da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Hurrengo ikasturteetan Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez irekiko da epea itunen araubidean sartzeko nahiz itunpeko unitateak eta laguntzako langile osagarriak aldatzeko ofiziozko proposamena onartzeko, eta, hala badagokio, eskabideak aurkezteko.

6.– Irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko ofiziozko proposamena, onartu arren, behin-behinekoa izango da, eta irakaskuntzak edo unitateak gehitzea eta hezkuntza-itunaren araubidean sartzea baimentzen eta ukatzen duen behin-behineko proposamen bateratuan ondorioztatuaren mende egongo da; horretarako, konkurrentzia-araubidean ezarriko dira lehentasunak.

7.– Ofiziozko proposamenaren eta eskabideen onarpena soilik elektronikoki aurkez daiteke, Hezkuntza Sailaren hezkuntza-itunen aplikazio informatikoaren bidez.

8.– Aplikazio horretan, 4. eta 5. apartatuetan adierazitako epean, ikastetxearen titularrak eskura izango ditu honako agiri hauek:

a) Berritzeko:

– Ituna berritzeko ofiziozko proposamena, irakaskuntzak edo unitateak gutxituta edo gabe, Hezkuntza Sailak egina.

– Berritzeko ofiziozko proposamena onartzeko agiria.

– Ituna berritzeko eskabidea, irakaskuntzak edo unitateak gutxituta edo gabe, gaur egun itunpekoa den zentroaren titularrak egina, ofizioz egindako proposamena onartzen ez bada.

b) Gaur egun itunpekoak diren ikastetxeetan irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko:

– Gaur egun itunpekoak diren ikastetxeetan irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko ofiziozko behin-behineko proposamen baldintzatua.

– Gaur egun itunpekoak diren ikastetxeetan irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko ofiziozko behin-behineko proposamen baldintzatua onartzeko agiria.

– Gaur egun itunpekoak diren ikastetxeetan irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko eskabidea, ofiziozko proposamena onartu ez duen ikastetxearen titularrak egina. Eskabidean adierazi behar du 9. artikuluan zerrendatutako zein irizpide alegatzen dituen.

c) Gaur egun itunpekoak ez diren ikastetxeak hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko:

– Gaur egun itunpekoa ez den ikastetxearen titularrak egiten duen eskabidea, hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko, 9. artikuluan zerrendatutako irizpideetatik zein alegatzen dituen adieraziz.

d) Itunpeko geletan eskolatutako ikasleen hezkuntza-laguntzako berariazko premiei erantzuteko eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko laguntzako langile osagarriak ituntzeko:

- Laguntzako langile osagarrien ofiziozko proposamena.
- Laguntzako langile osagarrien ofiziozko proposamena onartzeko agiria.
- Laguntzako langile osagarrien eskabidea, ofiziozko proposamena onartu ez duen ikastetxearen titularrak egina.

9.– Ituna berritzeaz gain, irakaskuntzak edo unitateak gehitu nahi dituen ikastetxeak berritzezko ofiziozko proposamena onartu behar du; horrelakorik ezean, berritzeko eskabidea egin eta, gainera, gehitzeko ofiziozko proposamena onartu behar du, eta, horrelakorik ezean, gehitzeko eskabidea egin.

10.– Gaur egun hezkuntza-itunik ez duten ikastetxeek hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko eskabidea besterik ezin dute aurkeztu.

11.– Gaur egun itunpekoak diren ikastetxeek ofiziozko proposamena onartu behar dute, edo 5. artikuluko 2. apartatuan eta 6. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan aipatutako laguntzako langile osagarriak eskatu.

12. artikulua.– Eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea interesdunak aurkeztuz gero, ondorengo apartatuetan adierazitako dokumentazioa erantsi beharko du:

a) Ikastetxearen titularren ordezkariaren egiaztapena, hala badagokio.

b) Berritzeko proposamenerako, 6. artikuluko eskakizunak betetzen direla dioen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da eskabidearekin batera.

c) Irakaskuntzak edo unitateak gehitzea eta hezkuntza-itunaren araubidean sartzea eskatzeko, 6. artikuluko eskakizunak betetzen direla dioen justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da eskabidearekin batera, baita betetze hori ziurtatzen duen dokumentazioa eta eskabidean alegatutako lehentasunezko irizpideak ere. Horien artean, honako hauek daude:

c.1.– Gehitzeak edo araubidean sartzeko eskolatzeak egiazko beharrak nola asetzen dituen.

c.2.– 6. artikuluan aurreikusitako gainerako betekizunak.

c.3.– 9. artikuluan aipatzen diren eta alegatzen eta egiaztatzen dituen lehentasunezko irizpideak. Hala badagokio:

– Ikastetxeko eskola-populazioaren egoera sozioekonomikoa.

– Hezkuntza-sistamarako interes pedagogikoa duten eta ikastetxearen programazioan aurreikusita dauden esperientziak.

d) Hezkuntza-laguntzako berriazko premietarako laguntzako langile osagarrien eta hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzeko eskabideetarako, premia horien eskumena duen zuzendaritzak egindako adostasun-agiria aurkeztu beharko da.

2.– Deialdi honetan parte hartuz gero, ofiziozko proposamena onartuta nahiz eskabide bat aurkeztuta, ikastetxearen titularrak baimena ematen dio Hezkuntza Sailari zuzenean eskura dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez; horrelakoetan, ikastetxearen titularrak ez du betebeharrak horien ziurtagiririk aurkeztu beharko, eskatzen ez bazaizkio.

Hala ere, ikastetxearen titularrak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

13. artikulua.– Aurkeztutako eskabideak izapidetzea.

1.– Ofiziozko proposamena onartzen ez dutenen eskabideetako datuak eta atxikitako gainerako agiriak egiaztatutako ditu, batetik, Kudeaketa Ekonomikorako Zuzendaritzak eta, bestetik, ikastetxeen, lanbide-heziketaren eta hezkuntza-aniztasun eta inklusioaren arloan eskumenak dituen kasuan kasuko saileko zuzendaritza organikoak.

2.– Ofiziozko proposamena onartzen ez dutenek aurkeztutako berritzeko eskabideei dagokienez, eskumena duen zuzendaritzak egiaztatuko du berritzea eskatutako irakaskuntzak eta unitateak mantentzeko baldintzak betetzen diren, eta dagokion txosten-proposamena egingo du.

3.– Irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko eta hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko eskabideei dagokienez, baldintzak betetzen diren egiaztatutako da, eta, hala badagokio, lehentasunen aplikazioa baloratuko dute eskumena duten zuzendaritza organikoek, Kudeaketa Ekonomikorako Zuzendaritzari zuzendutako txosten-proposamen batean.

Txosten-proposamen horretan, behin-behineko ofiziozko proposamenak eskatzeko eta onartzeko konkurrentzia-erregimenean aplikatuko dira irakaskuntzak edo unitateak gehitzeko eta hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko lehentasunak.

4.– Laguntzako langile osagarriak ituntzeko eskabideei dagokienez, zuzendaritza organiko eskudunak egiaztatutako ditu datuak, eta dagokion txosten-proposamena egingo du.

5.– Eskatutakoaren aurkako txosten-proposamenetan, edo, hala badagokio, gehitzeko behin-behineko ofiziozko proposamen baldintzatua onartzearen aurkakoetan, berariaz azalduko da oinarrian dagoen arrazoi zehatza.

14. artikulua.– Ebazpen-proposamena.

1.– Txosten-proposamena oinarri hartuta, Kudeaketa Ekonomikorako Zuzendaritzak egingo du behin-behineko ebazpena, eta Eusko Jaurlaritzaren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarkien taulan argitaratuko da (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa/>), hurrengo egunetik aurrera jakinarazpen-ondorioak izan ditzen.

2.– Behin-behineko ebazpenaren aurka erreklamazioak eta alegazioak aurkez ditzakete eskatzaileek, jakinarazten denetik 10 egun balioduneko epean. Era berean, epe horretan eskabidea aurkeztean egondako akatsak zuzendu ahal izango dira, zuzendu daitezkeenak izatekotan, besteak beste: eskabidea izapidetzea galarazten dutenak eta eskatutakoa aldatzen ez dutenak, epezkano.

3.– Adierazitako epea bukatutakoan, jarraian azaldutako osaera duen Balorazio Batzorde Orokorra aztertuko ditu erreklamazioak eta alegazioak, eta behin betiko ebazpen-proposamenak onartuko ditu, Hezkuntzako sailburuari igortzeko.

Honako hauek osatuko dute Balorazio Batzorde Orokorra:

– Batzordeburua: Administrazio eta Zerbitzuetako sailburordea.

– Kideak:

a) Hezkuntzako sailburordea.

b) Lanbide Heziketako sailburordea.



c) Hezkuntzako lurralde-ordezkarriak.

d) Kudeaketa Ekonomikoko zuzendaria.

– Idazkaria: Itunen eta Ordainketa Eskuordetuen Zerbitzuaren arduraduna.

4.– Berriaz arrazoituko da eskatutakoaren aurkako proposamena, eta, hala badagokio, itunpeko irakaskuntzak edo unitateak gutxituta berritzeko eskaera.

15. artikulua.– Deialdiaren ebazpena.

1.– Hezkuntzako sailburuak amaiera emango die deialdiko prozedurei, honako hau agindutakoan:

a) Hezkuntza-itunak berritzeko, 2021-2022 ikasturtean itunpeko unitateak gutxituz edo mantenduz.

b) Irakaskuntzak edo unitateak gehitzea onartzeko edo ukatzeko; eta hezkuntza-itunen araubidean sartzeko.

c) itunpeko ikastetxeetan laguntzako langile osagarriak ituntzeko.

Aginduan zehaztu egin beharko dira, gutxienez, ikastetxe bakoitzeko itunpeko unitateen kopurua, hezkuntza-etapa, maila, prestakuntza-zikloa, txanda, hizkuntza-eredua, aplikatzeko modulua eta zenbatekoa.

Eskatutakoa ukatzen bada eta onartutako berrikuntzan irakaskuntzak edo unitateak gutxitzen badira, erabaki hori berriaz arrazoituko da.

2.– Interesdunei berri emateko, Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkien taulan argitaratuko da agindua (hemen: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), eta jakinarazpen-ondorioak izango ditu hurrengo egunetik hasita; horren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

16. artikulua.– Emandako ituna formalizatzea eta argitaratzea.

1.– Hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 31. artikuluan eta Agindu honetako III. eranskinean dagoen administrazio-agirian xedatutakoaren arabera formalizatuko dira itunak. Agiri horrek itunpeko gelak jasoko ditu, eta, urteko aldaketak badira, izan diren aldakuntzak.

2.– Hezkuntza-itunaren emaitza urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Kudeaketa Ekonomikorako zuzendariaren ebazpen bidez, jendeak jakin dezan.

17. artikulua.– Itunaren aldaketa.

1.– Deialdi honen xede den itunaren indarraldian, hezkuntza-ituna ofizioz edo ikastetxearen titularrak hala eskatuta alda daiteke, artikulua honetan aurreikusitako kasuetan eta adierazitako prozeduren arabera.

2.– Aldaketaren ondorioz irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gehitu nahiz gutxitu daitezke eta ohikoa edo ezohikoa izan daiteke.

3.– Ohiko aldaketa da ofizioz eskatzen dena edo eskabide bidezko proposamenarekin ados ez egoteagatik proposatzen dena; hurrengo ikasturtearen hasieratik izango ditu ondorioak, eta eskolatzeko beharra gehitzea edo gutxitzea izan behar du arrazoa, edo, hala badagokio, beste baldintza batzuk ez betetzea.

4.– Ezohiko aldaketa ofiziozkoa izango da; egiten den ikasturte berean ditu ondorioak, eta gehitzea nahiz murriztea ekar dezake, ondorengo apartatu hauetako kasuren bat egonez gero:

a) Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gehitzea dakarren ezohiko aldaketa honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:

– Ikasle berriak sartzea ohiko onarpen-prozeduratik kanpo, baldin eta beste ikastetxe batean plaza librerik ez badago eta onarpena ohiko prozeduratik kanpoko onarpena arautzen duen araudiaren arabera egin bada.

Ikasle errepikatzaileen matrikulek ez dute inolako aldaketarik eragingo.

– Ikasleek ikastetxean jarraitzea bermatzeko eskubidea erabiltzea, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan adierazi bezala, ikasle-kopuruak ratioak eta gutxieneko ikasle-kopurua betetzen baditu.

– Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo itunpeko unitateetan eskolatutako ikasleen kontentsazioa gehitzea.

b). Irakaskuntzak, unitateak edo laguntzako langile osagarriak gutxitzea dakarren ezohiko aldaketa honako zergati hauetakoren batengatik egin daiteke soilik:

– Emakidarako kontuan izandako ikasleei buruzko datuak eta egiaz eskolatutakoak, edo horien hezkuntza-laguntzako berariazko premiak, bat ez etortzeagatik, ikasturtea hasitakoan eta ikasturtean zehar.

– Ikasleen hezkuntza-laguntzako berariazko premiak edo hezkuntzako desberdintasunak kontentsatzekoak gutxitzeagatik.

5.– Ezohiko aldaketak egin aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen araberrako prozedura egingo da, betiere ikastetxearen titularrari entzun ondoren.

Hezkuntzako sailburuari dagokio ebazpena ematea, eta sinatutako itunari erantsita formalizatuko da.

6.– Urtero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen bidez jakinaraziko da hezkuntza-itunaren araubidean sartzeko epea ireki dela, itunaren ohiko aldaketen bidez ituntzeko unitateak zehaztu direla, eta hurrengo ikasturtearen hasieratik dituztela ondorioak.

Ohiko aldaketa hori ofiziozko proposamenen bidez nahiz ikastetxearen titularrak eskatuta egin daiteke.

18. artikulua.– Titularraren eta itunpeko ikastetxearen betebeharrak.

Itunpeko ikastetxeak eta titularrak nahitaez bete behar dituzte 3. artikuluan aipatzen diren hezkuntza-itunaren araubide juridikoaren ondoriozko baldintzak eta eskakizunak, baita hezkuntza-laguntzako berariazko premiei erantzuteko irakaskuntzak araupetzen dituenaren ondoriozkoak ere. Besteak beste, eta zehazteko asmorik gabe, honako hauek:

a) Itunpeko irakaskuntza eta unitate guztiak abian izatea, eta irakasleak, hezkuntzako langileak eta osagarriak soilik itundutako zereginetarako izatea.

- b) Unitate bakoitzeko ikasle kopuruari buruz arauz ezarritako mugak betetzea.
- c) Maila, ziklo eta etapa bakoitzeko itunpeko unitateak eskatu eta banatzean itunpeko irakaskuntzetan eta unitateetan eskolatutako ikasleek ikastetxean jarraituko dutela bermatzea urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan ezarritako terminoetan.
- d) Itunpeko irakaskuntzak doan ematea, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 33. eta 42. artikuluetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, finantzaketa partzialarekin itundutako unitateetan, eta Estatuko Administrazioaren eta autonomia-erkidegoen aurrekontu orokorren legeekin bat etorriz, baita Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 88. artikuluekin, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen 8/1985 Lege Organikoko 51. artikuluekin eta aipatutako dekretuko 42. artikuluekin ere.
- e) Ikasle adingabeekin harremanak dituzten langileei eskatzea eta egiaztatzea Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua aipatzen duen baldintza betetzen dutela.
- f) Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 1. artikuluan, II. tituluan, hogeita bosgarren xedapen gehigarrian eta gainerako prezeptuetan ezarritako printzipioak ezartzea eta betetzea; besteak beste, hezkidetzarena.
- g) Erljio-ekintza guztien borondatezko izaera errespetatzea, irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 37. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- h) Irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 61. artikulutik 65.era aipatzen diren informazioa eta jarduerak ematea administrazioari.
- i) Itunpeko irakaskuntzen arloan Hezkuntza Sailak abian jarritako ekimen guztietan hartu behar dute parte ikastetxeek, Hezkuntza Sailak hala eskatuz gero, eta bereziki behartuta daude ebaluazio-diagnostikoetan parte hartzera.
19. artikulua.– Aurrekontu-kreditua.
- 1.– Ikasturtea bi aurrekontu-ekitaldiren kontura finantzatuko da, eta hezkuntza-itunak finantzatzeko aurrekontu-partidetan erabilgarri dauden kredituen arabera baimenduko da gastu hori.
- 2.– Ikasturte bakoitzerako itundu beharreko unitate kopurua zehazteko izapidea hasi aurretik, iraila-abendua aldiari dagokion gastua baimendu beharko da. Gastu hori Euskal Autonomia Erkidegoko deialdiaren urte bereko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura finantzatuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean indarrean den legealdirako itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomikoen arabera kalkulatu da.
- 3.– Halaber, urtarrila-abuztua aldiari dagokion gastua baimendu eta aurretiaz izapidetuko da deialdiaren ondorengo urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura, gastu-espedituentz aurretiaz izapidetzea arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz. Aurrekontuei buruzko Legeak deialdiaren ondorengo urteko ekitaldirako adierazten dituen modulu ekonomikoetara egokituko da zenbateko hori.

20. artikulua.– Hezkuntza-itunak ordaintzea.

1.– Agindu honen bidez arautzen diren hezkuntza-itunen ordainketa aurretiaz egingo da, lau hilerik behin, Ordainketa Eskuordetua arautzen duen urriaren 15eko 289/1993 Dekretuaren arabera, ordainketa-mota horrek eragina duen etapetan.

2.– Ikastetxeek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak hezkuntza-itunen ordainketa jasotzeko.

3.– Ikastetxe onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete dituztela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak behar adina aldiz, edo ikastetxearen titularrari eskatuko zaio, 12.2 artikuluan jasotako baimena berariaz ukatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

21. artikulua.– Ez-betetzeak.

Onuradunak itunaren baldintzak betetzen ez baditu, itzuli egin beharko ditu jasotako diru-zenbatekoak eta legez dagozkien interesak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartuz. Hori guztia, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluak dirulaguntzak itzultzeko ezarri duen prozedura orokorraren arabera. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu du, eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezarri ditu.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Hirugarren Maila eta laguntzako langile osagarriak ituntzea.

1.– Aplikatu daitekeen araubidearen arabera, hezkuntza-itunen arloan eskumena duen saileko organoak sustatuko du hezkuntza-ituneko modulu ekonomikoek honako hau jasotzea:

– 4.1.a) artikuluan aipatutako Haur Hezkuntzako etapako lehen zikloko hirugarren mailaren irakaskuntza.

– Hezkuntza-laguntzako berariazko premien laguntzako langile osagarriak, 5.2 artikuluan aipatutakoak, gaur egun hezkuntza-itunerako modulu ekonomikoa finkatuta ez dutenak.

2.– Irakaskuntza horretako unitateak eta aipatutako langile osagarriak agindu honen xede den hezkuntza-itunen araubidean egiaz sartzeko, aipatutako modulu ekonomiko horiek onartu beharko dira.

3.– Modulu horiek ezartzen ez diren bitartean, irakaskuntza horren eta laguntzako langile osagarrien finantzazioa dirulaguntzen araubidera doituko da.

AZKEN XEDAPENA.– Agindu honen ondorioak eta inpugnazioa.

1.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

2.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko

2022ko ekainaren 27a, astelehena

epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## I. ERANSKINA

## 2022-2028 ALDIKO IKASTURTEETARAKO UNITATEAK ITUNTZEKO IRIZPIDEAK ETA GEHIENEO ETA GUTXIENEO IKASLE-KOPURUAK

1.– Itunpeko ikastetxeetako unitate bakoitzeko gehieneko eta gutxieneko ikasle-kopuruak honako hauek dira:

Irakaskuntza	Gehieneko ikasle-kopurua	Gutxieneko ikasle-kopurua
Haur Hezkuntza (lehenengo zikloa 2 urte)	18	13
Haur Hezkuntza (bigarren zikloa)	25	13
Lehen Hezkuntza	25	13
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	30	17
Gela egonkorak - Heziketa Berezia	5	3
Zereginen ikaskuntzarako gelak	10	
Batxilergoa	35	17
Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloak	15	12
Lanbide Heziketako erdi- eta goi-mailako zikloak	25	12
Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaroak	20	9

2.– Irakaskuntza-maila bakoitzeko taldeak eratuko dira, dagokion baimena lortu ondoren.

3.– Irakaskuntza bakoitzeko lehenengo mailetan taldeak eratzea:

Irakaskuntza bakoitzeko lehenengo mailetan hizkuntza-ereduaren arabera eratuko dira taldeak. Batxilergoan ez dira ereduak kontuan izango.

A.– Ikastetxeak ematen duen irakaskuntza baxueneko lehenengo mailan eratuko dira taldeak, Aginduko 4.1 artikuluko a, b eta c apartatuetan jasotakoetan.

Unitate osoak itunduko dira, irakaskuntza bakoitzeko ikasle-kopuru handienarekin. Gehieneko kopurua gainditzean, unitatea zatitu egingo da edo irakasle gehigarriak esleituko dira, honako irizpide hauen arabera:

1.– Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren mailan, xedapen gehigarri bakarrean adierazitakoaren arabera:

a) Gehieneko ikasle-kopuruak (18 ikasle) 25 ikasleko kopurua gainditzen badu, irakasle gehigarri bat esleituko da dagokion irakaskuntzan.

$18 + 1$  (7ra arte) = 1 unitate + 1 laguntzako irakasle.

b) Gehieneko ikasle-kopurua 26 eta 36 artean badago, unitatea banatu egingo da.

$18 + 8$  (36 arte) = 2 unitate.

c) Gehieneko ikasle-kopurua 37 eta 44 ikasle artekoa bada, irakasle gehigarri bat esleituko da dagokion irakaskuntzan.

$18 + 18 + 1$  (7ra arte) = 2 unitate + 1 irakasle gehigarria.

d) Gehieneko ikasle-kopurua 45 eta 54 artean badago, unitatea banatu egingo da.

$18 + 18 + 9$  (54 arte) = 3 unitate.

Eta horrela gainerakoak.

2.– Haur Hezkuntzako irakaskuntzako lehen mailan, 2. zikloa, nahiz eta sarrerako irakaskuntza ez izan, eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan, sarrerako irakaskuntza bada:

a) Gehieneko ikasle-kopuruak (25 ikasle) 27 ikasleko kopurua gainditzen badu, irakasle gehigarri bat esleituko da dagokion irakaskuntzan.

b) Gehieneko ikasle-kopurua 28 eta 50 artean badago, unitatea banatu egingo da.

c) Gehieneko ikasle-kopurua 51 eta 54 ikasle artekoa bada, irakasle gehigarriak esleituko dira dagokion irakaskuntzan.

– 51 eta 52 ikasle = 2 unitate + 1 irakasle gehigarria.

– 53 eta 54 ikasle = 2 unitate + 2 irakasle gehigarri.

d) Gehieneko ikasle-kopurua 55 eta 75 artean badago, unitatea banatu egingo da.

Eta horrela gainerakoak.

Lehen Hezkuntzako 1. maila ez denean sarrerako irakaskuntzaren hasiera, 3B taula aplikatuko da.

B.– Honako irakaskuntza hauetan (Lehen Hezkuntzako 1. maila, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila, Batxilergoko 1. maila eta Lanbide Heziketako 1. maila) hasierako taldeak eratzeko gutxieneko matrikulazioa honako hau da:

3B.– Irakaskuntzako etapa bakoitzaren hasieran taldeak eratzeko beharrezko ikasle-kopurua			
Lehen Hezkuntza		Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	
1 talde	13	1 talde	17
2 talde	28	2 talde	34
3 talde	55	3 talde	64
4 talde	82	4 talde	94
5 talde	109	5 talde	124
6 talde	136	6 talde	154
Batxilergoa		Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloak	

3B.– Irakaskuntzako etapa bakoitzaren hasieran taldeak eratzeko beharrezko ikasle-kopurua			
1 talde	17	1 talde	12
2 talde	36	2 talde	24
3 talde	71	3 talde	39
4 talde	106	4 talde	54
5 talde	141	5 talde	69
6 talde	176	6 talde	84
<b>Lanbide Heziketako erdi-eta goi-mailako zikloak</b>			
1 talde	12		
2 talde	26		
3 talde	51		
4 talde	76		
5 talde	101		
6 talde	126		

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikastetxeren batek taulan adierazitakoa baino talde gehiago izanez gero, talde gehigarri bakoitzeko beharrezko gutxieneko matrikulazioa gehituko da 1. apartatuan jasotako irakaskuntza bakoitzeko gehieneko ratioarekin.

Lehen Hezkuntzan talde gehigarri bakoitza gehituko da 3B taularen aurre-aurreko unitate kopuruaren gehieneko ratioa gehi unitate horien bikoitzarekin.

$$7 \text{ talde} = (25 \text{ (gehieneko ratioa)} * 6 \text{ unitate}) + (6 \text{ unitate} * 2) = 163.$$

4.– Ondorengo mailetan irakaskuntzako etapa bakoitzaren hasieran osatutako taldeak mantentzeko ikasle-kopurua:

Irakaskuntza bakoitzaren hasieran osatutako taldeak hurrengo ikasturteetara igaroko dira, irakaskuntza hori amaitu arte, eta itunduta mantenduko dira, baldin eta jarraian dauden ratioak betetzen badituzte:

4.– Aurreko mailetan osatutako taldeak mantentzeko behar den ikasle-kopurua			
<b>Haur Hezkuntza</b>		<b>Batxilergoa</b>	
1 talde	11	1 talde	17
2 talde	26	2 talde	36
3 talde	51	3 talde	71
4 talde	76	4 talde	106
5 talde	101	5 talde	141
6 talde	126	6 talde	176
<b>Lehen Hezkuntza</b>		<b>Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloak</b>	
1 talde	11	1 talde	10
2 talde	26	2 talde	16
3 talde	51	3 talde	31
4 talde	76	4 talde	46
5 talde	101	5 talde	61
6 talde	126	6 talde	76



4.– Aurreko mailetan osatutako taldeak mantentzeko behar den ikasle-kopurua			
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza		Lanbide Heziketako erdi-eta goi-mailako zikloak	
1 talde	17	1 talde	10
2 talde	31	2 talde	26
3 talde	61	3 talde	51
4 talde	91	4 talde	76
5 talde	121	5 talde	101
6 talde	151	6 talde	126

Ikastetxeren batek taulan adierazitakoa baino talde gehiago izanez gero, talde gehigarri bakoitzeko beharrezko gutxieneko matrikulazioa gehituko da 1. apartatuan jasotako irakaskuntza bakoitzeko gehieneko ratioarekin.

Era berean, Haur eta Lehen Hezkuntzaren hasieran esleitutako irakasle gehigarriak hurrengo ikasturteetara igaroko dira, irakaskuntza hori amaitu arte, eta itunduta mantenduko dira, baldin eta 3. apartatuko esleitzeko baldintzak betetzen badituzte:

5.– Udalerrian dagoen ikastetxe bakarra bada, Haur eta Lehen Hezkuntzan unitate bat ituntzeko gutxieneko ikasle-kopurua 11 izango da. Ratio bera aplikatuko da itunpeko ikastetxeetan, baldin eta D hizkuntza-eredua ematen duten udalerriko ikastetxe bakarrak badira.

6.– Haur eta Lehen Hezkuntzako mailaren batean unitate bat ituntzeko gutxieneko ikasle-kopururik ez badago, adin desberdinetako eta irakaskuntza bereko ikasleak taldekatu egin beharko dira, gehieneko ikasle-kopuru hauen arabera itundu dadin talde bat.

– 2 adin desberdinetako ikasleak:

a) 2 eta 3 urte: 18 ikasle (Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren maila itundu behar denean aplikatzeko irizpidea).

b) Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza: Ondoz ondoko mailetako 20 ikasle, dagokien irakaskuntzan.

– 3 adin desberdinetako ikasleak: Maila jarraituetako 15 ikasle, irakaskuntza berean.

Itundu beharreko unitatea ikasle gehien duen mailakoa izango da. Ikasle-kopuru bera izanez gero, goreneko mailakoa itunduko da.

7.– Ikasle zaurgarrien ehuneko oso handia duten ikastetxeetan, taldeak eratzeko gehieneko eta gutxieneko ikasle-kopurua honako hau da goiko mailetan (hezkuntza-konplexutasunaren indizeak adieraziko du hori):

Irakaskuntza	Gehieneko ikasle-kopurua	Gutxieneko ikasle-kopurua
Haur Hezkuntza (lehenengo zikloa 2 urte)	18	8
Haur Hezkuntza (bigarren zikloa)	23	8
Lehen Hezkuntza	23	8

Irakaskuntza	Gehieneko ikasle-kopurua	Gutxieneko ikasle-kopurua
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	25	12

Ikasleen doikuntza hori egingo da ikastetxearen hezkuntza-komplexutasunaren indizea (HKI) mailarik altuenean dagoenean Haur eta Lehen Hezkuntzan nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

HKI hori kontsultatu egin daiteke itunaren xede den mailarako ISEI\_IVEIren webgunean:

8.– Lehen eta Haur Hezkuntzan unitate bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua gainditzen denean, 17.4.a artikuluan jasotako ezohiko aldaketan unitatea banatuko da. Banaketa hori ezin bada egin baimendutako gela batean, beste irakasle bat esleituko da.

9.– Era berean, Heziketa eta Ikaskuntzako zuzendariak ekainaren 9ko 86/2015 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Lanbide Heziketaren araubideari eta ezarpenari buruzkoa) aurreikusitakoaren arabera, adierazitakoa ez bezalako ikasle-kopurua duten unitateak ituntzea proposa dezake, ikasleen ezaugarriak, ikastetxearen kokapena edo Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloaren berezitasuna direla eta.

Lanbide Heziketako irakaskuntzetan, ratioak ezarritakoez bestelakoak izan daitezke, ekoizpen-sarearen beharrak, ikastetxearen eskualdeko errealitate sozioekonomikoa edo matrikulatuko diren ikasleen ezaugarri bereziak direla eta; kasu horretan, Lanbide Heziketako sailburuordearen baimena beharko da.

10.– Salbuespenez eta irakaskuntza bakoitzeko behin, aurreko ikasturtean itundutako unitate batek itunduta jarraituko du ikasle-kopurua gutxieneko ratoria iristen ez bada, eta Lehen eta Haur Hezkuntzetan ezin denean irakaskuntza bereko beste maila batzuekin elkartu, betiere horrek etapa horretan lehendik zeuden itunen kopurua handitzen ez badu.

#### 2022-2028 ALDIKO LEHEN HIRU IKASTURTEETAN UNITATEAK ITUNTZEKO ZEHAZTAPENAK

Matrikulatutako ikasle-kopuruaren ondorioz aurreko ikasturtean baino unitate gutxiago itundu behar badira, mailakatuta gutxituko dira: ikasturte bakoitzeko unitate bat, beheko mailetako irakaskuntzekin hasita. Murrizketa hori aplikatuko da alde batetik Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, bestetik Batxilergoa eta azkenik Lanbide Heziketa berezita.

2022ko ekainaren 27a, astelehena

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Irakaskuntzak: Haur H. (2. zikloa); Lehen H., DBH, H. Berezia 2 (gela egonkorrak),  
Batxilergoa eta Zereginen Ikaskuntza.

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

IRAKASKUNTZA		A		B		D	
		Ikasleak	Unitateak	Ikasleak	Unitateak	Ikasleak	Unitateak
HAUR HEZKUNTZA (1. ZIKLOA)	2 urte						
HAUR HEZKUNTZA (2. ZIKLOA)	3 urte						
	4 urte						
	5 urte						
	GUZTIRA						

LEHEN HEZKUNTZA	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	5.						
	6.						
	GUZTIRA						

DBH	1.						
	2.						
	3.						
	4.						
	GUZTIRA						

HEZIKETA BEREZIA 2 (GELA EGONKORRAK)							
Garapenaren nahasmendu orokorrak							
Psikikoak							
Urritasun motor larriak, lotutako urritasunekin							
Sentsorialak							
GUZTIRA							

BATXILERGOA	1.						
	2.						
	GUZTIRA						

ZEREGINEN IKASKUNTZA							
----------------------	--	--	--	--	--	--	--

\_\_\_\_\_, 202\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloak

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

Lanbide Heziketako oinarrizko mailako zikloak	Maila	Hizkuntza- eredua	Ikasleak	Taldeak

\_\_\_\_\_, 202\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_ (a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2022ko ekainaren 27a, astelehena

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloak

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloak	Txanda	Maila	Hizkuntza-eredua	Ikasleak	Taldeak

\_\_\_\_\_, 202\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2022ko ekainaren 27a, astelehena

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Irakaskuntzak:      Lanbide Heziketako goi-mailako zikloak

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

Lanbide Heziketako goi-mailako zikloak	Txanda	Maila	Hizkuntza- eredua	Ikasleak	Taldeak

\_\_\_\_\_, 202\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2022ko ekainaren 27a, astelehena

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Irakaskuntzak: Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaroak

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

Lanbide Heziketako espezializazio-ikastaroak	Txanda	Maila	Hizkuntza-eredua	Ikasleak	Taldeak

\_\_\_\_\_, 202\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA

2022ko ekainaren 27a, astelehena

II. ERANSKINA  
ITUNTZEKO ESKABIDEA

Ikasturtea:

Laguntzako langile osagarriak

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

Laguntzako langile osagarriak	Hizkuntza- eredua

\_\_\_\_\_, 202\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_ (a)  
TITULARRA/ORDEZKARIA



## III. ERANSKINA

## HEZKUNTZA-ITUNEN ADMINISTRAZIO-AGIRIA

Batetik:

Jokin Bildarratz Sorron jn., Hezkuntzako sailburua, Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Bestetik:

----- jn./and., ikastetxearen titularren legezko ordezkaria den aldetik; ikastetxea ----- kokatuta dago, eta honako hau da haren titularra: -----.

Itun hau honako klausula hauei jarraituz izenpetzen dute:

Lehenengoa.– Hezkuntza-itun hau izenpetzen duen ikastetxea Hezkuntza Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoan eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan xedatutako arauen mende jartzen da, eta bere gain hartzen ditu Lege Organiko horietatik, Hezkuntza-itunei buruzko araudia onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretutik eta aplikagarri zaizkion gainerako arauetatik eratorritako betekizunak.

Bigarrena.– Itun hau indarrean izango da honako ikasturte hauetan: 2022-2023, 2023-2024, 2024-2025, 2025-2026, 2026-2027 eta 2027-2028.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza-itunei buruzko araudia onesten duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 16.etik 19.era arteko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazioak funts publikoak esleituko ditu ikastetxe itunduen gastuei aurre egiteko.

Laugarrena.– Ikastetxearen titularrak derrigorrezko irakaskuntzak doan eman beharko ditu, irakaskuntza horiek emateagatik zuzeneko edo zeharkako inolako diru-ordainik hartu gabe, dagozkien ikasketa-programen eta -planen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa-antolamenduari buruz indarrean dauden araei jarraikiz.

Hala ere, ikastetxearen titularrak kasu bakoitzean baimenduko diren diru kantitateak jaso ditzake ikasleengandik finantzaketa osagarri gisa, itun berezi partzialaren erregimeneko irakaskuntzak –derrigorrezkoak ez direnak– emateagatik. Jasotako diru kantitatea ezingo da izan osoko itunaren erregimenean legokiokeenaren eta Administrazioetik hartutakoaren arteko diferentzia baino handiagoa.

Bosgarrena.– Ituna dela bide, ikasleak onartzeko arau hauek bete beharko ditu ikastetxearen titularrak: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren II. tituluko 3. kapitulua eta urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretua (ikasleak onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duena hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan nahiz itunpeko ikastetxe pribatuetan –Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako ikasketetan–, baita oinarrizko lanbide heziketa ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan ere), baita itun hau indarrean dagoen bitartean ikasleak onartzeko prozedurari buruz ematen diren aginduak edo horiek ordeztzen dituzten arauak ere.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du ikastetxearen titularrak.

Seigarrena.– Itunpeko ikastetxearen titularrak obligazioa hartzen du Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak eta maiatzaren 3ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak aipatzen dituzten gobernu-organoak eratzeko eta mantentzeko, Hezkuntza-itunen Araudiari buruzko irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 35. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Eratu gabe dituzten ikastetxeetan, dagokion ikasturteko lehen hiruhilekoan eratuko dira organo horiek, Hezkuntza Sailak ezarritako aldian.

Zazpigarrena.– Itunpeko ikastetxearen titularrak Hezkuntza Sailak plangintzan hurrengo sei ikasturteetarako onartzen dituen heziketa-zikloak soil-soilik eskainiko ditu.

Zortzigarrena.– Ikastetxean sortzen diren lanpostu hutsak betetzeko, Hezkuntzarako Eskubidea arautzeko uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 60. artikuluan (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak aldatu zuen lege hori) eta Hezkuntza-itunen Araudiari buruzko irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 47. eta 56. artikuluetan ezarritakoa beteko da.

Bederatzigarrena.– Ituna aldatzeko, urtero argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpena, epea ireki dela jakinarazte aldera.

Ohiko aldaketa hori ofiziozko proposamenen bidez nahiz ikastetxearen titularrak eskatuta egin daiteke.

Hezkuntza Sailak ezarriko duen formatuan izapidetuko dira eskabideak.

2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunen araubidean sartzeko (unitate konkretuak zehaztuta) eta laguntzako langile osagarriak ituntzeko deialdia egiten duen Aginduaren I. eranskineko ituntze-irizpideak eta gutxieneko eta gehieneko kopuruak hartuko dira kontuan.

Hamargarrena.– Sailburuak Agindu bidez ebatziko ditu dagokion ikasturtean ituntzeko taldeak. Agindu hori Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da, eta ikastetxe bakoitzak dagokion ikasturteko ezohiko aldaketaren ondorioz itunduko duen talde kopurua ere jasoko du.

Hamaikagarrena.– Itun honen bidez, ikastetxearen titularrak jardunean eutsi behar dio hezkuntza-maila bakoitzean itundutako unitate kopuruari. Halaber, eutsi egin beharko dio, gutxienez, eskola-unitate bakoitzeko une bakoitzean indarrean den batez besteko ikasle/irakasle erlazioari.

Baldin eta batez besteko ikasle/irakasle erlazioa edo jardunean dagoen unitate kopurua gutxitzen bada, itundutako unitate kopurua ere gutxitu egingo da.

Ikasturtea hasitakoan eta ikasturtean zehar ezohiko aldaketak egin daitezke, itundutako unitateak egiaz eskolatutako ikasleen datuetara edo horien hezkuntza-laguntzako berariazko premietara doitzeko; ezohiko aldaketa horiek 2022-2023 ikasturtean hasi eta 2027-2028 ikasturtera arteko indarraldiarekin hezkuntza-itunak berritzeko eta hezkuntza-itunen araubidean sartzeko (unitate konkretuak zehaztuta) eta laguntzako langile osagarriak ituntzeko Aginduan dago.

Hamabigarrena.– Itunpeko ikastetxeek lau hilean behin jasoko dute dirua, aldi hauetako bakoitzean: irail-abendua, urtarril-apirila eta maiatz-abuztua. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuen ordainketa eskuordetua arautzen duen urriaren 19ko 289/1993 Dekretuak ezarritakoari jarraituko zaio (uztailaren 27ko 395/1995 eta ekainaren 30eko 127/1998 Dekretuek aldatu zuten dekretu hori), ordainketa mota horrek eragina duen etapetan.

Diru kantitate horiek ordaintzeko, ikastetxeek egiaztatu beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituztela, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura dirulaguntzak eskuratu dituzten onuradunek zerga-betebeharrak bete dituztela egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduaren arabera.

Laguntzen ikastetxe onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak bete dituztela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak behar adina aldiz, edo ikastetxearen titularrari eskatuko zaio, 12.2 artikuluan jasotako baimena berariaz ukatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

Hamahirugarrena.– Itunpeko ikastetxearen titularrak behar diren neurriak hartuko ditu Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren 38., 39. eta 40. artikuluek xedatzen dituzten betebeharrak betetzeko.

Hamalagarrena.– Ikasturtea amaitu ondoren, eta betiere azaroaren 30a baino lehen, Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak onetsitako ikastetxearen ekonomia-balantzea aurkeztu beharko du ikastetxearen titularrak, dokumentu honen III-A eranskinaren arabera. Gainera, ikastetxea Hezkuntza Sailaren ikuskaritza-organoen, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontu-hartzailatza Nagusiaren edo sortuko diren kontrolpean egongo da.

Hamabosgarrena.– Ikastetxeak bere itunpeko izaerari buruz eman beharreko publizitatea, ikasleei kobratutako kuotei buruz indarrean dagoen legeria bete izana ikuskatzea eta funts publikoak itundutako helburuarekin erabiltzea indarrean den araudira egokituko dira.

Hamaseigarrena.– Itun hau Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren VI. kapituluan xedatutakoaren arabera berritu eta aldatuko da.

Hamazazpigarrena.– Itun hau azkentzeko arrazoiak Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen irailaren 8ko 293/1987 Dekretuaren VII. kapituluan daude jasota.

2022ko ekainaren 27a, astelehena

Hemezortzigarrena.– Ituna indarrean dagoen bitartean sortzen diren desadostasunak Hezkuntzako sailburuak edo hark izendatutako organoak ebatziko ditu.

Horrela jasota gera dadin, bi aldeek agiri honen bi ale izenpetzen dituzte, klausulekin bat etorritz, ondoren adierazten den egunean eta tokian.

Vitoria-Gasteiz, 202\_\_(e)ko .....aren.....(a)

IKASTETXE PRIBATUA

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Sin.:-----  
Notario-ahalordearen zk.: -----

Sin.: Jokin Bildarratz Sorron

2022ko ekainaren 27a, astelehena

### III-A ERANSKINA GASTUEN BALANTZE EKONOMIKOA

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

#### GASTUAK

1-	IRAKASKUNTZA-GASTUAK		<input style="width: 80px;" type="text"/>
1.1-	LANGILE-GASTUAK		
1.1.1-	Irakasleak	_____	
1.1.2-	Irakasleak ez diren langileak (atezainak, administrazioa,	_____	
1.1.3-	Teknikariak (logopeda, psikologoa, etab.)	_____	
1.1.4-	Bestelako langileak	_____	
1.2-	IRAKASKUNTZAKO GASTU OROKORRAK		
1.2.1-	Mantentze- eta funtzionamendu-gastuak	_____	
1.2.2-	Beste gastu batzuk (finantzarioak, zergak, etab.)	_____	
1.3-	AMORTIZAZIOAK	_____	
2-	JARDUERA ETA ZERBITZU OSAGARRIEN GASTUAK		<input style="width: 80px;" type="text"/>
2.1-	Zerbitzu osagarriak (garraioa, jangela, egoitza)		
2.1.1-	Langileak	_____	
2.1.2-	Gastu orokorrak	_____	
2.2-	Jarduera osagarriak	_____	
3-	BESTELAKO GASTUAK		<input style="width: 80px;" type="text"/>
	_____	_____	
	_____	_____	
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>			

Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen 298/1987 Dekretuaren arabera, \_\_\_\_\_(e)(a)n egindako bileran, ikastetxeko Eskola Kontseiluak balantze ekonomiko hau onartzea erabaki zuen, eta nik, kontseiluburu naizen aldetik, ziurtatu egiten dut

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sin.: \_\_\_\_\_ NAN:  
(Eskola Konts./OOG burua)

Sin.: \_\_\_\_\_ NAN:  
(Eskola Konts./OOG idazkaria)

2022ko ekainaren 27a, astelehena

### III-B ERANSKINA SARREREN BALANTZE EKONOMIKOA

Kod.: \_\_\_\_\_ Ikastetxea: \_\_\_\_\_ Udalerria: \_\_\_\_\_

#### DIRU- SARRERAK

1-	IRAKASKUNTZARAKO SARRERAK		
1.1-	HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA		<input style="width: 80px;" type="text"/>
1.1.1-	Hezkuntza-itunak		
1.1.2-	Ordainketa eskuordetua		
1.1.3-	Kontratuak (erretiratu partzialak)		
1.1.4-	Bestelakoak (zehaztu)		
	_____	_____	
	_____	_____	
	_____	_____	
1.2-	GOBERNUKO BESTE SAIL BATZUK		
	_____	_____	
	_____	_____	
	_____	_____	
1.3-	BESTE DIRULAGUNTZA PUBLIKO BATZUK		
	_____	_____	
	_____	_____	
1.4-	BESTE EKARPEN EZ-PUBLIKO BATZUK		
	_____	_____	
	_____	_____	
2-	KUOTEN ONDORIOZKO SARRERAK		<input style="width: 80px;" type="text"/>
2.1-	Irakaskuntza-kuotak		
2.1.1-	Lanbide Heziketako erdi-mailako zikloak		
2.1.2-	Lanbide Heziketako goi-mailako zikloak		
2.2-	Jarduera osagarrien ondoriozko sarrerak		
2.3-	Zerbitzu osagarrien ondoriozko sarrerak		
3-	BESTE SARRERA BATZUK (zehaztu)		<input style="width: 80px;" type="text"/>
	_____	_____	
	_____	_____	
<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>			

Hezkuntza-itunen Araubidea onartzen duen 298/1987 Dekretuaren arabera, \_\_\_\_\_(e)(a)n egindako bileran, ikastetxeko Eskola Kontseiluak balantze ekonomiko hau onartzea erabaki zuen, eta nik, kontseiluburu naizen aldetik, ziurtatu egiten dut

\_\_\_\_\_ (e)n, \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)(a)n

Sin.: \_\_\_\_\_ NAN:  
(Eskola Konts./OOG burua)

Sin.: \_\_\_\_\_ NAN:  
(Eskola Konts./OOG idazkaria)